

1981-II-27

Donostiako Diputazio jauregian, 1981.eko Otsailaren 27an, arratsaldeko lauretan hasi du Euskaltzaindiak hilabeteko bere batzarra. Bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buru, P. Altuna, J. L. Davant, A. Irigoyen, E. Knörr, P. Lafitte, E. Larre, J. San Martin eta J. M.<sup>a</sup> Satrustegi euskaltzain jaunak; N. Aizola, J. A. Arana, M. Atxaga, P. Charritton, J. Fdez. Setien, J. Goikoetxea Maiza, J. Intxausti, X. Kintana, J. L. Lizundia, X. Mendiguren, K. Rotaetxe, P. Uribarren, A. Zatarain eta J. J. Zearreta euskaltzain urgazle jaunak; J. M.<sup>a</sup> Satrustegi idazkari dela.

X. Diharce, J. Hiriart-Urruty eta P. Larzabal euskaltzain jaunek ezin etorria adierazi dute.

Ohi den ctoitzarekin eman zaio hasiera.

Urtarrileko batzar agiriak onartu dira.

Euskaltzainburuak Juan Thalamas Labandibar euskaltzain urgazlearen hil berria eman dio batzarrari.

## GOIZEKO BATZARRAREN BERRI

Euskaltzain osoen goizeko bilkuran gai asko aipatu denez, honako hauek azpimarratu ditu idazkariak:

1. **Literatur batzorde** bat sortzea eskatu zuen Jagon Sailburuak Loiolako jardunetan. Berezkoa du Euskaltzaindiak Literatur sorketaren eremua zaintzea eta bultzatzea. Idazleen arteko harremanak ere nolabait kontuan eduki behar dira. F. Krutwig izendatu du batzordeburu, eta geroari buruz, dauden zereginen aurkezpen bat egiteko eskatu zaio, beste aldi baterako. Orduan izendatuko dira batzordekideak.

2. **Kazetaritza batzordea.** Euskal telebistarik noizbait izango badugu, egunkari eta irriatiak euskalduntzen joango badira gure artean, hizkuntza arloan arazo asko sortuko du kazetaritzak. Euskara herriratzea helburu nagusia. Hori delata, kazetaritza batzorde baten asmoa badu Euskaltzaindiak. Oraikoz asmo hutsa bada ere, arlo horretan lanean ari direnekin hitz egitea erabaki da eta zer helburu lukeen aztertzea.

3. **Itzultzaileen batzordea.** Hau ere aipatu zen Loiolan, Euskaltzaindiak gaurkoz bere gain hartua badu ere Itzultzaileen eskola, ez da zuzenean berari dagokion eginkizuna. Ez da beraz batzorde beharrik ikusten. Harreman ofizialearako Jagon Sailburua eta eskolako zuzendaria hor ditu.

Datorren Apirilean Frisian egiteko da "Erromantizismoak hizkuntza zabalkunde gutxikoen pizkundean izan zuen eraginaz" Nazioarteko Kongreso bat. Gomitari erantzunez, J. Haritschelhar eta F. Krutwig joango dira.

Ekainaren 28tik Uztailaren 3ra egingo da Israelen Oroimenari buruz Nazioarteko beste Kongreso bat. J. M.<sup>a</sup> Satrustegi eta J. M. Lekuona joango dira herri jakintzak eta bertsolaritzak oroimenari buruz dituzten berezitasunak adierazteko.

Martxoan F. Ondarra euskaltzain berriaren sarrera hitzaldia delata Altsasun egiteko den batzarrean, ez da Atlasen aurrean egingo. Dialektologia eskuartearen duelarik Euskaltzaindiak, gerorako uzten da bestea. Euskaltzainburugoa bilduko da larunbat arratsaldean, eta igandean, 22an, goizetik izango da batzar irekia.

## BATZORDEEN BILERAK

**Irakasleena.** J. J. Zearreta batzorde idazkaria, mintzatu da goizean egindako bileraz. D. Mailako programaren argitalpen berria aurkeztu du eta lehenengo etsaminak Maiatzaren 15 eta 16an izango direla esan du Durangon eta Donostian. Batzarkide asko dira eta atal eragile edo batzorde txiki bat izendatu dute, berauon arteko arazoak arinago eramateko. Bilera honen jarraipena Martxoaren 13an izango da.

**Dialektologi batzordea** ere bildu da goizean euskaltzain osoekin batera. Juan Jose Mogelen bigarren mendeurrena ospatuz batera, Deban, Apirilaren 23, 24, 25 eta 26an Ana M.<sup>a</sup> Etxaidek prestatu duen Ikastaro programa, ikuturren batekin, zehaztu eta onartu da. Ikastaroaren kopurua, matrikula, hutsik eta ostatuarekin eta baita beste zenbait baldintza finkatu dira. Matrikula baiespena erabakitzeke, azpibatzerde bat izendatu da: F. Ondarra, A. Irigoyen, J. A. Letamendia, K. Rotaetxe eta Ana M.<sup>a</sup> Etxaidek osotua.

## BATZAR TXOSTENAK

J. Haritschelhar jaunak euskararen bi latiboetaz egin du bere txostena. Noiz *-ra* eta noiz *-rat*. Dirudenez, erabat han gelditzeke edo luzaz egoteko doalarik norbait, *-rat* (Pariserat) erabili ohi da; eta luzapenaren markarik ez delarik, *-ra*. Elkarrizketa luzea sortu du txostenak, eta ohar jakingarriak jaso dira.

J. Garmendia Arruebarrena jaunak bialdu duen txostena, L. Villasantek irakurri du. Honako izenburu hau zuen: "F. I. Lardizabalen lan eta idazketaz ezagutzen ez diren berri eta gauza batzuk". Idazle honen zenbait lan, hain zuzen ere, galdutzat ematen dira.

Eta besterik gabe amaitu da batzarra.

*Euskaltzainburua*  
Fr. Luis Villasante

*Idazkaria*  
Jose M.<sup>a</sup> Satrustegi